



Hamlet euskaldunaren azken emanaldia.

Danimarka, Nafarroa eta munduko beste erresumetako biztanle orori jakinarazi nahi diegu, zazpi euskal herrietan zehar urte erdi luzean jira eta bira ibili ondotik, iritsi zaiola XXI. mendeko euskal Hamleti azken hatsa emateko garaia, bere aita errege zenduarekin, Ofelia maitearekin eta tragedian hildako lagun guztiekin bat egiteko sasoia. Azken agurra, azken peredikua eta obraren azken-azken emanaldia, **Iruñea** hiri buruzagian eginen dugu, **maiatzaren 28an**, Nafarroako Antzerki Eskolan, 20:30etan.

Orain arteko bidaia atsegina bezain oparoa izan da antzezlanean parte hartu dugun guztiontzat. Lehenengo burutazioak eta prestalanak askoz lehenagotik hasi bagenituen ere, **estreinaldia** Lapurdin eman genuen, Luhusoko Harri Xuri aretoan, **2013ko azaroaren 1ean**. Geroztik 45 emanaldi eskaini ditugu, iazko azaroan zehar lehenik, eta aurtengo urtarril amaieratik hona gero; saio horietan, **9.000 ikusle** inguru izan ditugu orotara. Ez dira egunero lortzen diren markak euskal antzerkian. Horretaz pozik gaude proiektuan parte hartu dugun hiru antzerki-konpainiak eta zazpi aktoreak, baina, meritua gurea bakarrik ez delakoan, **jende askori agertu nahi diogu gure esker ona**, bihotz-bihotzez.

Lehenik eta behin, emanaldietara etorri den **publikoari**, ikuskizunean eskainitako txalo, irri eta oihuengatik, konplizitate-jokoa gogo onez onartzeagatik, ahoz aho gure lana ikusteko gonbita zabaltzeagatik. Zuen eskuzabaltasun hori gogoan eramango dugu beti.

Era berean, eskerrak eman behar antzoki, kultur etxe eta bestelako elkarteetako **antolatzaileei**, gure proposamen hau zuen herrietara eramateagatik, askok eta askok lana aurretik ikusi gabe. Konfiantza horren merezient izateak ematen digun harrotasunaren parekoa izan dadila zuen asetasuna.

Ez ditugu ahaztuko **komunikabideetako langileak** ere, antzezlan honen berri zabaltzeagatik eta gure iritzi eta lanei eskainitako arretagatik. Oihartzun hori gabe ezingo genuen egindako bidea egin.

Eta azkenik, zergatik ez, eskerrak eman nahi dizkiegu gaurko eta hemengo



Hamlet honen kontrako iritziak zabaldu dituztenei ere: haien argudioek indartu egin gaituzte geure apustuan, eta beste behin erakutsi antzerkia, zinez egiten denean, gizartean eragina duen arte bizia dela, eztabaidak eta kalapitak sortzeko gai dena.

Beraz, horiek guztiak eskertu ondotik, gure gonbita berritzen dizuegu, azken emanaldia gurekin ospatu nahi baduzue, **maiatzaren 28an arratseko 20:30etan** etor zaitezten Iruñeko Antzerki Eskolara.

Festa hori galdu nahi ez baduzue, sarrerak lehenbailehen erreserbatzeko bi modu daude:

1. www.laescueladeteatro.com/es/reservas/
2. Antzokiko txarteldegian bertan, aurrealmentan.

Azken emanaldi honen ondotik, bertako sekretua isilpean gordetzeko konpromisoa alde batera utzita, lasai hitz egin ahalko dugu denok geure lanaz, ikusitakoaz, bizitakoaz eta gozatutakoaz. Era berean, sarean antzezlan osoaren bideo-muntaketa bat utziko dugu denon eskura, XXI. mendeko Euskal Herriko Hamlet hau ikusi duten guztien oroigarri, eta ikusterik izan ez dutenen pizgarri.

www.hamlet.kz



dEja bu

